

CEBANC

▪▪▪ 800 ikasle dihardute Lanbide Heziketan, 240 langabeentzako prestakuntza okupazionalean eta 2.500 profesionalei zuzendutako etengabeko prestakuntzan.

# Lapiko eta liburu artean

## Askok aukeratzen dituzte sukaldaritzako ikasketak. Gazte zein helduentzako aukera zabalak daude ostalaritza sektorean

1982an, garai hartan ostalaritza sektoreak zituen beharrei erantzun nahian, Donostiako Goi Mailako Sukaldaritza Eskola sortu zen. Gaur egun, ikastetxe honetan irakaskuntza arautua eta ez arautua eskaintzen dute, ikasleentzat alde batetik, eta langabezian dauden zein lanean ari diren profesionalentzat bestetik.

Guztira 3.500 ikasle daude: 800 Lanbide Heziketan, 240 langabeentzako prestakuntza okupazionalean eta 2.500 profesionalei zuzendutako etengabeko prestakuntzan.

Ikasle gehienak Gipuzkoa eta ingurukoak dira, baina urtez urte Espainiako Estatuko lurraldeetako eta Iberoamerikako ikasleak ugaritzen ari direla aipatzen dute eskolako arduradunek. «Gertaera honen arrazoi garrantzitsuena Euskal Herriko sukaldaritzak duen ospea da. Horrez gain, eskolan ikasi eta munduan zehar barreiaturik dauden profesionalak ere garrantzitsuak dira».

### Bi prestakuntza ziklo eskaintzen dira: erdikoa eta goi mailakoa

### Euskara...

Donostiako goi mailako suk... te ikasleek. Egunero menua... gehiago eragin dizkie, sukal... euskaratzea ez baita ahuntz...

Jon Mendizabal euskaraz... tzaz, bi urtez izen eta itzulpe... ikastetxeak «menuen hizteg... leek badute gutxienez menu...

### Erdi mailako eta goi mailako ikasketak

Sukaldaritza eskolan bi prestakuntza ziklo edo maila eskaintzen dira: erdikoa eta goi mailakoa. Erdi mailako ikasketak egiteko, DBH gainditua edo baliokidea den titulua izan behar da (LHI, REM I, BBBko 2. maila...), eta honen bitartez, *Jatetxe eta tabernako zerbitzua*, *Ogigintza eta gozogintza* edo *Sukaldaritza* izeneko tituluak eskuratu daitezke. Goi mailako ikasketak egin ahal izateko, DBHko Batxilergoa edo baliokidea den titulazioa eduki behar da (UBI, LH II, REM II...), eta bide honetatik, *Jatetxeko goi mailako teknikari* titulua eskuratzen da.

Ikastetxeko arduradunek emandako azalpenen arabera, gaur egun, erdi mailako ikasketetatik ezin da goi mailakoetara pasatu, eta ikastetxean bertan «batzuek diote bi mailen artean zubi lana egingo lukeen ikasturte bat jarri behar dela», baina «beste batzuek, aldiz, gauzak bere horretan ongi daudela diote». Gauzak horrela, erdi mailako zikloa aukeratu eta amaitu

**IURRETAKO GLHB INSTITUTUA**

IRAKASKUNTZA ERTAINAK
Informazioa: Ikastetxeko idazkaritzan
Tel.: 94 681 57 12 • Faxa: 946 20 28 28
e-maila: 014950aa@hezkuntza.net
Web orria: iurretainstitutua.net

*IKASKETA GUZTIAK EUSKARAZ ETA ERDARAZ*

**BATXILERGO TEKNOLOGIKOA (2 urte)**

AURREMATRIKULA EPEA: EKAINEAN 1tik 12ra

**ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK (2 urte)**

AUTOMOZIOA: Ibilgailuen elektromekanika (2000 ordu)
METALA: Mekanizatua (2000 ordu)
ADMINISTRARITZA: Gestión administrativa (GAUEZ) (1400 ordu)

**GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK (2 urte)**

ADMINISTRARITZA: Administrazioa eta finantzak (2000 ordu)
METALA: Mekanizazio bidezko produkzioa (2000 ordu)
: Galdaketa eta pulbimetalurgia bidezko produkzioa (2000 ordu)
ELEKTRONIKA: Produktu elektronikoen garapena (2000 ordu)
INFORMATIKA: Informatika-sistemen administrazioa (2000 ordu)



G.B.L.H.I. EASO
BATXILERGOAK
HEZIKETA-ZIKLOAK

**Felipe IV Ibil., 1-B. AMARA - DONOSTIA**
**«Peritos»ekin banatutako ikastetxea**
**☎ 943 45 54 22. Faxa: 943 47 00 22.**
**easo@ieaso.hezitek.net / www.ieaso.hezitek.net**

BATXILERGOAK:
- Teknologikoa
- Natur eta Osasun zientziak

HEZIKETA ZIKLOAK:

**Erdi-Mailako**
- Mekanizazioa
- Neurrira egindako Arotzeriaren eta Altzarien Fabrikazioa eta Instalazioa
- Ekipo eta Instalazio Elektronikoak

**Goi-Mailako**
- Erregulazio eta Kontrol-Sistema Automatikoak
- Ingurugiroko Kimika
- Arotzeriako eta Altzarigintzako Produktuen Garapena
- Eraikuntza-Proiektuen Garapeen eta Aplikazioa
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Proiektu Mekanikoen Garapena